

Jose Luis Lezeta Unzueta
Antzuola, Gipuzkoa (1941)

Aurkibidea

Biografia

Basalde auzoko Olamendi baserrian jaioakoa 1941ean. Igeltseroa lanbidez. 1998an egindako elkarrizketan kanpandorrea erre zeneko kontuak kontatu zituen.

Zintak

ANT-029

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Deogracias Horrillo, Marijo
- **Data:** 1998-01-14
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Kanpandorreak su hartu zuenekoa

- **Erref:** ANT-029/001
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Dotrina ikasten zuten abadearekin. Acción Católica. Kanpandorreak su hartu zueneko kontuak. Gurutzea nola jausi zen ikusi zuten.</p>

Transkripzioa

- Gu genden elizan eskolatik bialduta dotriñan, orduan dotriña emuten zan eta abadiakin, elizan bankuetan jarritta, eta beste kuadrilla bat egoten zan, orduan bi-hiru kuadrilla egoten zien, elizatik albora ba Aksion Katolikia dago beste lokal bat, eta harek ba pasua dauka elizara, elizatik Aksion Katolikara, ta hamaika terdiak inguruan zan hori, eta puf, jausi zan eta guk dana argixa ikusten giñuan eliza barruan, dana nik ikusten naban ba garran moduan dana, bentanatatikan zela [...] Gu antxintxika, korrika edo zela esaten da, Aksion Katolika aldera, eta harek berriz elizara. Bai ba, han enkontrau giñan erdiko pasilluan, eta bueno ba pasau zan haura, kitto.
- Oñaztarri bategatik sua hartu zeban?
- Ez zan, ez zan, garran moduan zan haura, sua goixan kanpantorrian hartu zeban sua, baiña garran moduan ikusi zan ba barruan Garran [...] argittasuna zela eitten daben, argixa joan ingo zan momentu haretan eta gero ba argittasuna zan. Eta ba gero kanpora urten giñuan, eta kanpora urten giñuanian ia txingorrakin zuri-zuri eindda.
- Zer zeuan, egun guztia eurixa ala?
- Ez, ez, ez. Egualdixa ba gaurko modukua, zaparrada batzuk eta botatzen zittuan eta trumoia eta. [...] haundi samarra-eta.
- Eta kanpuan?
- Bai, txingorra, txingor-zaparradia, txingorra ari zan. Oiñeztarri harekin eta tromoe harekin, eta zaparraria etorri zan moduan txingorra ein zeban. Gero kanpora urten giñuan, eta ia ordua zan eta begira egon eta atertu zebanian ba bazkattara etxera.
- Beori bakarrik amendau zan sua ala, eurixakin?
- Bonberuak etorri zien. Bonberuak etorri zien baiña ezin zebe emendau. Hain goixan zela zeon, goiko teillatua [...] baiña ez zien aillegatzen ura hara botatzeko. Eta bueno, gero ba geratu ein zien, laga ein zotsen erretzen puxkat ba peligrua zainttu berakua eta laga ein zotsen eta barrua erre zanian emendau zan eta kitto.
- Nundik etorri zien bonberuak?
- Ez dakit bonberuak nun egongo zien edo, Eibarren egongo zien edo. Igual Oñatin artian ez zan egongo igual. Eibartik seguru asko.
- Zenbat jende zendeten orduan hor barruan?
- Hor barruan? Zenbat egongo giñan ba, gutxienez hogeta hamar bat inguru egongo giñala edo gehixao.
- Eta edadia gotxi gorabehera?

- Hamabi urte inguru. Urtebete bi goittik beheti, hamaika-hamabi.
- Susto ona hartuko ziñuen ba.
- Sustua pasau zan.
- Pasau bai, baiña momentuan... Asmau ziñuen ze zan haura hola ikusitta?
- Gero kanpora urten giñuanian bai, txingorrakin... ba trunboia [...].

Ordurako entzunda genden trunboia zela izeten zan, oiñeztarrixan ondorian trunboia [zela izeten dan], baiña sustuakin bakizu, kortauta egoten da. Eta arratsaldian ba oiñ eskolia berrixak dare baiña lehen zaharra eta altua zeon eta bentanati begira egoten giñan. Mutikuak badakizu, ihesi o lokesea, eta gurutzia [jausten] ikusi giñuan.

- Gero jausi zan gurutzia?
- Bai, atsaldian jausi zan gurutzia. Erre zanian. Erretzen, erretzen, erretzen inddarra joan eingo jakon eta ba behera jausi zan.
- Eta hori ze ordutan izan zan?
- Hamaikak terdiak inguruan, gutxi gorabehera hamaika terdiak, hamabixak laen gutxiao.
- Eta gero atsaldian jausi zan gurutzia.
- Arratsaldian jausi zan gurutzia. Ondiokan elizan ikusten da zulo bat, gurutzia teillatuan sartuta geratu zan, han geratu zan goixan elizako teillatu gaiñian.
- A, ez zan barrura sartu? Teillatu gaiñian jausi zan?
- Teillatu gaiñian geratu zan.
- Eta oindio ikusi eitten dala markia esaten dozu?
- Nik uste dot baietz. [...] Elizan kanpandorrian alderdittik, eliza barrenaldera, koruan goixan.

2. Kanpandorrea

- **Erref:** ANT-029/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:07:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Elizaren konponketa-lanak noiz hasi ziren. Kanpandorrea.

Transkripzioa

- Eta gero arreglatze kontuak eta zela, noiz hasi zan?
- Hori enpresa batek hartu zeban. Ni akordau eitten naiz zela eitten ibili zian, enpresa batek hartuko zeban, eta aldamiñuak ein zien buelta guztian eta ba, lelengo kendu [...]. Nik hamabi urtekin ba zela...
- Ba igual akordatzen za detalliekin-edo.
- Detailliak bakarrik ba aldamiñuak ikusten ziela han, eta gero aldamiñuakin ba hormigoiaikin ein zeбен berrixa, lehengua kendu, zaharra kendu eta gero berrixa ein. Geratu zana plataformara arte kendu ein zeбен.
- Zaharra baiño haundixuaua ez da hau, luzetxuaua?
- Ez dot nik pentsatzen. Ez dabe diferentzia haundirik izengo. Zeoze igual izengo da baiña hori ia nik ez dakit. Zaharra igual izengo zan ba harritzkoa zela zan ba zabalago. Hori be harrixa da baiña beste harri kolore bat zeukan orduan.
- Diñue kanpaian aldia edo linguak ez zeukala edo txikixaua zeukala eta honek haundixaua. Argazkixan ikusten danez.
- Hori balitzake. Gero haundixaua igual eingo zeбен ba kanpaian gaiñian

han deskansillon bat edo eukiko zebe eta han geratu edurra edo geratu zela eitten zan ba txaflana botako zebe behian. Ikusten da han behian zela txaflan bat daukala, haura izengo da ba edurra ta geratu ez dain. Uniko holako zeren bat euki leike.

- Eta beste ezer ez zan apurtu elizan zerakin. Kanpantorriak bakarrik hartu zeban?
- Kanpantorriak bai, kanpantorriak hartu zeban bakarrik. Elizan ez zan surik izen, kanpantorrian egon zan sua bakarrik.
- Denpora gutxixan egongo zan baiña.
- Haura eskillaran bera sartu zan, eskillaria horrek egurrezkua zeukan. Kanpantorria barrutik gora, egurra, harek hartuko zeban sua. Eta harek hartu zebanian ba orduan hara ezin jun ez zaon juteik. Sua hartuko zeban-eta.
- Oin goraiño dao baitta eskillaria?
- Ixixa goraiño. Goiko kanpae txikittaraiño dao, goiko kanpaiak baiño gorao dago eskillaria, gora paretan eskillaria.
- Eta lehenaoko kanpandorra izengo zan oinguan antzerakua, supongo, ez?
- Oinguan antzerakua baiña koloria zeukan ba oin behian dauan kolore hortakua.
- Bai, illuntxuaua.
- Kanpaiak eta erlojuak eta lehengo beste dare oin?
- Bai, erlojua eta kanpai horrek lehenguak dia.
- Ez zeban hartu beste... puntiak bakarrik-edo?
- Puntiak bakarrik, puntiak beheko plataforma arte bakarrik. Gero erretzen lagatzen zotsen. Asike han kanpaiak daren haura ta haura lengo zarra da dana. Kanpai haundi horrek daretzen, erlojuan gaiñian daren kanpaiak, haura lehengua da dana. Hori Jexusek, aguazillak esplikauko dotsu dana, harek badaki...
- Ez naiz egon harekin.

3. Dotrina eta 'Acción Católica'

- **Erref:** ANT-029/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Dotrinaren inguruko azalpenak. Zer ikasten zuten. Jaunartzea. Apaizak. Acción Católicako lokaletan ere dotrina ematen zen.</p>

Transkripzioa

- Dotriñara ze zan, katekesisan antzerakua-edo?
- Orduan dotriña izeten zan ba gaurko aldian diferentia. Lengo dotriña ba aittaguriak eta hartaiko danak. Errezuak zela ein bihar izeten dan eta ba hoixe. Holakua izeten zan. Gero komuniua zela izeten da ba komuniua orduan preparau eitten zan.
- Konfesatzen harrapatzen bazotsuen baten batek gizurretan zebiztela-eta.
- Konfesau ez zan orduan eitten. Haura zan dotriña bakarrik. Eskolan egon eta eskolatik bialtzen zebe elizara.
- Astian zenbat aldiz hori?

- Egunero uste dot.

- Egunero eitten ziñuen?

- Bai. Egoten zan ordu erdin bat edo gehitxuao eitteko. Igual egunero. Horrekin ez naiz konturatzen. Egunero ez zan izengo, ze kategorixa diferentiak egongo zien, zarrauak eta gaztiauak-eta; igual astian bi aldiz edo izengo zan? Txandauaz, holako bat. Ez naiz akordatzen egunero juten giñanik edo ez giñanik. Hori ia...

- Eta ze apaizekin zendeten, akordatzen za?

- Joe, don Leandro bat, zan, hilda da; eta bestaldian ez dakit zein egongo zan.

- Don Leandrokin zuek zendeten?

- Bai.

- A, eta gero Accion Catolican beste batzuk zerela.

- Beste kuadrilla bat.

- Harek beste apaizen batekin egongo zien.

- Harek beste apaizen batekin egongo zien.

- Zeintzuk zien ba Antzuelako apaizak?

- Don Bartole be bazeuan eta, gero jun zan haura hemetik baiña.

- Orduan hemen Antzuelan abade bat baiño gehixao zeuan, ezta?

- Bai, gerotxuao be bai, bi abade. Orduan bi zeren, gero bat jarri zan. Handik laister bat, horrek ezkutau zienian, jubilau zienian. Don Leandro jubilau zanetik uste dot nik bat egongo zala.

4. Kanpandorreak su hartu zuenekoa

- **Erref:** ANT-029/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:12:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Kanpandorreak su hartu zueneko kontuak. Oinaztuekin (oinaztarriak) basoak ere erre izan dira.

Transkripzioa

- Eta akordatzen za justo haura entzun ziñuenian edo ikusi ziñuenian apaizak zeoze esan zeban?

- Keba.

- Edo zuek, baten bati zeoze erten jakon barrutik.

- Instantaneo izan zan baiña. Ba zarata bat, geuk pe ez zekigun, badakizu, sustautakuan txilixua edo zeoze eitten danian, ba guk pentsau giñuan ba hobiao izango zala "Acción Católica" jutia tokau jakun guri, kanpora urtetzia baiño hara barrura, bestiak zela han zeren ba igual ba haura akordauko jakon abadiak be, hara juatia, eta bestiak ba handik bestaldera elizara etortzia.

- Eta handik be ikusi ein zeben, "Acción Católica"tik".

- Igual-igual, hori danetik ikusi leike. Kristala zeon tokixan ba atzekaldian gar baten moduan zela izen zan ba handik argixa. Pararraiosa gaiñera haren alderdira zeon.

- Pararraiosa?

- Pararraiosa, pararraios. Funtzionau zeban o ez zeban, ba hara zeuan.

- Pararraiosak ez dau ba, se supone "raiak paratzeko" ez dago ba?

- Baiña puxkan bat jodiduta badago, segun.
- Pentsatzen jata hain rarua...
- Pararraios esaten da ba, oiñeztarrixak hartzen dau eta haura subterraneuan egon bihe dau, goititik behera kable bat edo "lo que sea", lurpera sartzen da, eta lurpera sartzen danian ba "ya está". Baiña han etorri bihar dau. Baiña izen bazan momentu bat ba harek ez zebana hartu edo "lo que sea" ba, momentu bat pasauko zeban kanpantorre barrutikan hain bixkor eitten dabe horrek, oiñeztarrixak, eta gero sartu eta behera jungo zan igual.
- Eske graziosua da...
- Eta gero eskola aurrian, elizian hemetikaldian han mutikon bat jausi edo ein zala esaten zebe; guk ez giñuan ikusi, sustuakin be igual, ezta. Baiña ezer ez zan pasau.
- Eta beste iñun ez zeban jo beste oiñeztarrin batek-edo?
- Ez. Oiñeztarrixak hemen mordua izengo zien baiña harek beste nunbaitten jausiko zien, beste nunbaitten sartuko die eta kitto.
- Eta gerora entzun da oiñeztarrin batekin zeoze erre danik Antzuolan hola...
- Bueno, segun, erre, basuak eta bai. Basuai emon izan jao sua. Igual [...] joten dau, eta zorua sekua baldin badao, arbola baten sartzen da eta igual behian sua lagatzen dau. Eta gero ia handik sua sartzen da. Hori bai, hori ikusi izen da.
- Noiz eta akordatzen za?
- Hori ez da sarri eitten. Zuk basotan eta leku askotan piñuak igartuta ikusiko dittuzu. Harek oiñeztarrixak igartu dittu. Igual oiñeztarrixak sartzen da eta arboliai eitten jao bi'e bai edo hiru eta juten da ba barruan behera. Eta gero arbola haura sekau eitten da. Harek laga jaon zerakin, harek laga daben enfermedadiakin ba kitto haura sekau itten da. Eta bixkor gaiñera.

5. Neska-mutilen arteko banaketa eskolan, dotrinan

- **Erref:** ANT-029/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Kanpandorreak sua hartu zueneko eguna. Eguerdian gertatu zen, dotrina orduan. Eskola kontuak; irakasleak. Neska-mutilak banatuta egoten ziren bai eskolan eta bai dotrinan.

Transkripzioa

- Orduan bazkaltzera eta joaten zan etxera ala?
- Gu etxera juten giñan bazkaltzera. Gero eskolara atzera atsaldian ordu bittan.
- Eta hortik zihar izen zan, ordu bixak aldian izengo zan haura jausi zanian?
- Haura jausi zanian hirurak ingurua, geruao.
- Dana parian tokau jatzuen zeuei, beste iñor ez da egongo holaxe pare-parian.
- Nerekin batera zerenak be danak hantxe zeren. Hori halaxe tokau zan.
- Ze maestrokin zendeten akordatzen za?

- Ez, ni idea.
- Señorita Edurnekin ibilittakua za?
- Ez. Haura hor ibilli zan baiña haura gerotxuao, gu maistruakin ibilli giñan. Don Satur. Señorita Edurne ezautuko dozu hemengua dalako. Baiña don Satur ez dozu ezautuko.
- Don Satur?
- Don Satur. Beste bat don Antonio zan mutillena. Mutillendako gizonezkuak zeren eta neskendako emakumezkuak.
- Gaiñera aparte. Orduan igual neskak ez zebeñ ikusiko be eingo...
- Ez, gu mutillak egoten giñan bakarrik eskolan'e bai eta dotriñan'e bai.
- Orduan mutil pribilegiuak izan ziñaten, neskak [ez zitezela] enterau.
- Enterauko zien.
- Gero.
- Egongo zien eskolan harek'e. Orduan elizan mutillak zeren. Orduan neskak eta mutillak separao.

6. Natibitate eguneko bazkaria

- **Erref:** ANT-029/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:20:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Natibitate egunean zer jaten zuten: oilaskoa, konpota, intxaur-saltsa, gurina.

Transkripzioa

- Eta gero Natibitate Egunian bakillauan ordeñ oillaskua edo igual. Horrek basarrixan egoten zien-eta. Oillaskua-edo. Eta benga konpota y turrón...
- Ez zan pastelik itten etxian, ezta?
- Ez, ez, ez. Guriña eta intxaur-saltsia.
- Bizkotxoik eta holakoik etzan itten.
- (...)
- Guriña itten zan, eta intxaur-saltsia, eta konpotia, horrek. Guriña akordutzen naiz jaten zala Urteberri egunian eta Natibitate egunian eta hola.
- Hola esaerarik edo badago Urteberrixi buruz edo Gabonetakua?
- "Urteberri zarra berri" edo badaukazu ba zuk.
- Zela da hori, "Urte berri..."
- Zaharrak berri". Horrek esan nahiko dau ba zela hamabost egunian egoten dan Gabon usaiñakin, "con extraordinarios", zeoze, "dentro de, con" intxaur-saltsa "o, con menbrillo o konpota o", ba gero ba berriz be [...].

7. San Esteban eguneko ospakizunak; Gabonak

- **Erref:** ANT-029/011
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:25:30

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Esteban egunean, ospakizuna egiten zuten auzoko etxeetakoek, eta jokoan egiten zuten. Errondak. Errege egunean, opari askorik ez. Gurasoek egiten zituztenak: astoa atera; anis kopatxoa umeei. "Natibittate ase eta bete". Esaera zaharrak.</p>

Transkripzioa

- Erregen Eguna pasatzen daniel ze esaten da, esaeraik badago?
- Eta zuri esan dotsue San Esteban...
- San Estebantxe, lehen letxe.
- Idazteko be larri, ez dakit zela idatzi bihar doten hori.
- Jokuan eta zela itten zan eta? Orduan jokuan itten zan. Gabon-gabian auzokuak eta etxetakuak juntatzen zien gabian etxen baten, eta hola etaratzen zan mahas-pasak eta pikatzeko turroia eta, turroia ez, zauana, gailletak-eta, gero jokua. Baiña kuadrilla haundixak etxetan! Eta gero zela bakaziñuak egoten zien...
- Errondan.
- Gabon zaharrak arte segi itten zan gabetan eta juntatzen, atsaldetan eta.
- Errondan esaten jakon.
- Ez, guk errondataraz ez, guk esaten gontsan... Auzokuak juntatzen zien beti.
- Ba errondaria, errondia, "gaur errondia nun ingo juau"?
- Eta gero astegun hortan aste hortan be jokuan iten zan. Astian be segi itten zan jokuan itten hola atsaldetan edo, osea juntau ta....
- Zihero jokuai emunda.
- Ez, jai bezela izeten zan. Gero Erregenetan erregaluak eta gurian, behin edurra-eta ni akordatzen naiz, erregalo asko ez zan egoten, mazapoia izeten zan, mazapoi biribil hori konfittakin izeten zan, holakon bat eta zera eta astuan... [...]. Eta barruko erropan batzuk igual, eta erregiak pasatzen ziela esateko, astua etara, markak in, hartu zaltaittik korotzak eta ipini, eta gu mutikuak: "mekauuen, erregiak pasau dia ta...". Gero, ze egunetan zan?, egun bat zauan goizian gure amak emuten zoskuna anis kopatxo bat eta gailleta batzugin ohera etortzen zan repartitzen.
- Hori izengo da txokolatiana esan dozuna zuk, ez?
- Hori hogeta bostian, Natibittate egunian, hogeta bostian.
- Natibittate esaten zan "ase ta bete".
- Etorzen zan bandejiakin, akordatzen naiz kopatxo batekin.
- Horrek esan dabena, ohera eruaten zan, guretan txokolatia. Gero amortzua be dezentia ingo zan, diferentia beiñepein; gero bazkaixa ba, bazkaixa be bai, eta gero atsaldian egongo zan eta gabian be igual gero ta.
- Ase ta bete.
- Bai, orduan esaten zan: "jan hori, jan hori". Natibittate eguna dala ta, Natibittate egunian ase ta bete. Eta gero San Estebantxe, len letxe.
- Urte berrixandako ez dago orduan holako esaerarik.
- Ni ez naiz akordatzen. Ines ez za akordatzen?
- "Urte berri zoruak igarri". Bueno, "eso es por el cielo".
- [...].
- Saludua bai "Urteberrion". Ez dakit zer, "Zarrak berri".
- "-Ze berri? -Zarrak berri".
- Hori ointxe be usatzen da, ointxe be.
- "Zer berri, zarrak berri, arrabixagarri". Hori baten batek asmauko zeban.
- Edo "amorragarri" edo "arrabixagarri", segun ze.

8. Errege eguna

- **Erref:** ANT-029/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:26:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Errege eguneko opariak. Ikatza. Zapatak ilusio handiarekin garbitzen zituzten.

Transkripzioa

- Orduan Errege egunian zapatak brilluakin ipiñi bentanan eta gero erregalua zain.
- Erregalua ba iketza igual.
- Iketza ipintzen zan?
- Bai, batzutan ya lo kreo, entzunda behintzet.
- Ene, fulanai iketza ipiñi jauela eta. "Asi como, no sé pues, como hazaña o".
- A, eta gero zuen artian be komentau, ikatza ipiñi jauela...
- Bai, bai. Zuri ze ipiñi dotsue?, honbré, alkarri lagunak.
- Eta barre eta holakoik eitten zotsen iketza ipintzen zotsenei?
- Seguru baietz. Bueno...
- Zapatak garbitzeko ta ilusiñoik haundiña.

9. Gabon-gaueko "erronda" eta natibitate eguneko ohiturak

- **Erref:** ANT-029/018
- **Iraupena:** 0:05:45. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:13:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon-gauean "erronda" egoten zen; jokoan egitera joaten ziren. Goizeko 6:00etan meza izaten zen. Natibitate egunean zer jaten zen. Natibitate goizean ohitura izaten zen txokolatea egitea eta familiakoei ohera eramatea.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, kalian ez dakit, baiña basarrixan errondara joaten zan. Honbre, jokura, jokura. Auzuan lagunak gizonak, mutillak eta ezta?, eta etxen baten ba jokua. "Gaur errondia eingo juau, halako etxetan eingo juau gaur errondia".
- Errondia zer da, juntia-edo?
- Oin gau-pasa. Hori izengo zan, errondia esaten zan, "ronda". "Qué es ronda"?
- Ronda tabernan ibiltzen da, "una ronda", "un trago"-edo.
- Hori bai.
- Eta zela tabernaz taberna juten dan horregaittik igual izengo da, leku batetik bestera jute hori.

- Urtero diferentera juten bazan, errondia horregatik izengo zan.

- Basarrixan "aurten geurian eingo juau errondia", eta halaxe. Eta gero goizeko seiretan mezia egoten zan, goizeko seiretan egoten zan mezia.

- Hori hogeta bostian?

- Natibittate egunian, goizeko seiretan. Mutillak han errondan ibilitta mutillak edarrak egongo zien elizbarrenian.

- [...]

- Ze? Gau guztian egonda, erango zebe botillan bat edo zeoze. Don Euxebio konfesonarixo ertenda hasarre. Jolasian gaztiak. Gero harek jungo zien obero. Gero Natibittate Egunian ba bazkaixa, bazkai ona orduan be.

- Orduan be egoten da bazkairako zeoze ona, tradizionala egoten zan?

- Bai, bazkai diferentia izeten zan.

- Oillo paren bat edo hil eta, oillua saltsan eta, oillo-saldia, oillo-zopia ta. Ta gero besteik ze jango zan ba?

- Nik ez dakit ze jaten giñuan be.

- Oillua bai beiñepein akordutzen naiz ni. Ta oillo-zopia be bai. Orduan entremesik eta esparragoik eta guretan ez zan egoten beiñepein.

- Keba!

- "No había". Pate eta hola pentsau be ez. Langostinuak eta honek pentsau be ez. Jango giñuan ba oillo-saldia, oillo-zopia lelengo ederra. [...] Zopia tapiokiakin edo.

- "Con trocitos de pan tostao". Eta gero ba berriz be ba oillua saltsan. Eta aste guztian ez dakit legatza edo zeoze jaten giñuan.

- Ni ez naiz akordutzen janakin.

- Turroia, turroia etaratzeko desiatzen, oillua saltsan lagata. Oillua saltsan jaten zan.

- Bai, lehen saltsan jaten zan asko. Orduan be konpotia igualekua eingo zan.

- Bai, konpotia, intxaur-saltsia eta turroia. Guriñak'e bai, guriñak, "flanes". Horrek aspaldikua da, gure denporakua da, "flanes".

- Guriñak esaten jakue horri?

- Guriñak esaten gontsan guk. Orduan eitten giñuan, eitten zebe, oin indibidualak eitten dien bezela, orduan haundi bat. Bai, horixe, guriña, eta gero afaltzen be ez dakit ze, horretxekin ez naiz akordutzen.

(...)

- Eta lelengo, Natibittate goizian bat jaikitzen zan eta txokolatia itten zeban eta bestiai obero eruan txokolatia. Natibittate goizian hori.

- Hori mezara jua aurretik?

- Bai, bai.

- Goiz jaikitzen ziñaten.

- E, baiña mezak gero be egoten zien, hamarretan be egoten zan mezia.

- Baiña seiretan juten ziñatenian...

- Errondan ibiltzen zienak. Juergan ibiltzen zienak.

- A, klaro, harek goizao jun bihar, bestela e.

- Gero etxian geratzen zienak jokuan eitten zanian. Sekula ostian ez bada be jokuan orduantxe. Eta gero horixe, txokolatia ohera.

- Hori basarrixan, guk kalia ez.

- Basarrixan jaikiko zan ama edo baten bat eta harek ein biher danei. Gero jaiki hari nahi bon, txokolatia hartzia nahi bon. Eta gero bazkaittan be horretxek danak, buena zopa, oillua eta beste zeoze jango zan, no me acuerdo yo. Gero guriña be bai. Gero ba ez dakit zer, eta gero ba afaixa be eingo zan diferentia.

10. Ospakizunak: Gabonak; garia erein osteko afaria, etab.

- **Erref:** ANT-029/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:16:10

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Jai egunak noiz etorri zain egoten ziren. Garia ereiten zenean, "galafaria" egiten zen eta orduan ere konpota jaten zuten. Gabonetako kontuak.</p>

11. San Esteban eguneko ospakizunak

- **Erref:** ANT-029/020
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:19:40

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

San Esteban eguna; esaera zaharra. "San Estebantxe, lehen letxe". Erromeria egoten zen egun hartan. Plazan gramola eta txistulariak egoten ziren.

12. Pregoia, bandoaren irakurketa

- **Erref:** ANT-029/021
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:21:20

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Tanbolinteroak pregoia irakurtzen zuen. Herriko zenbait tokitan irakurtzen zuen bandoa.

13. Gabonetako ospakizunen inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-029/024
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:31:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gabon zaharretan zer afaltzen zen. Oilo-aza; bakailaoa; intxaur-saltsa; konpota; ardoa. Baserrietara alondegitik eramaten zuten ardoa. Gabon-gauean jokora joaten ziren; erronda egoten zen.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com